



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko abenduaren 12a

139. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzekoa. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da “Gazte Bermea” izeneko programan izena emateko irizpideak eta moduak birdefinitzera eta epeak berrirekitzera, programa horren onuradunen kopurua handitzeko xedez. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (19. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Nafarroako armarrria Euskal Autonomia Erkidegoaren monumentu batean agertzearen aurka dagoela, Nafarroari parte hartzen ez duen ente baten probintzia edo lurralde soil baten zeregina ematen baitio. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu emakume batek iragan asteburuan Iruñean pairatutako sexu-erasoa, eta biktimari bere elkartasuna eta babesa adierazten baitizkio. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Dominari buruzkoa eta Francisco Franco Bahamonde Nafarroaren adopziozko seme izatearen izendapena ezeztatu eta indarrrik gabe utz zedin premiatzen zuen Nafarroako Parlamentuaren erabakia betetzeari buruzkoa. Txema Mauleón Echeverría jaunak egin du (21. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzeko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Proposamen hori 2014ko irailaren 4ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. artikulua beste testu hau izan dezala proposatzen dugu:

“1. artikulua. Foru lege honek xede du Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea aldatzea, eta, zehazki, 49., 51. eta 110. artikulua, Nafarroako Foru Komunitateko kontratazio publikoko kontratazio-prozesuak arautzen dituzten klausula administratiboen agiritan klausula sozialak sar daitezen, halako moduz non, horiek ez betetzeak kontratuaren hutsaltzea ekartzen ahalko duen edo penalizazio ekonomiko handiak.

Zioak: Iruditzen zaigu Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea aldatzeko egiten dugun proposamenarekin, nahitaezkoa gertatzen dela legegintzako herri-ekimenean jasotzen den xedea aldatzea

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

«Artikulu bakarra. Aldatu egin da Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 49. artikulua. Honako testua izanen du:

49. artikulua. Kontratuak gauzatzeari buruzko eskakizun sozialak edo ingurumenaren arlokoak.

1. Administrazio klausula partikularren agiritan, betekizun sozial edo ingurumenaren arloko zehatzak ezarri beharko dira, kontratua exekutatzeko moduari buruzkoak eta haren ezaugarrien arabera egokituak. Esate baterako, ontzi, bilgarri edo produktu erabiliak berreskuratu edo berriz erabiltzea; produktu edo zerbitzuen efizientzia energetikoa; produktuak berriz erabil daitezkeen ontzietan ematea; kontratistaren kargura hondakinak edo produktu erabiliak jaso eta birziklatzea; luzaroko langabeei lana eman beharra; gazte eta langabeentzako prestakuntza jarduerak kontratistaren kargura antolatzea; sexuen arteko berdintasuna sustatzeko edo etorkinak integartzeko neurriak hartzea; legez ezarritako kopurua baino pertsona ezgaitu gehiago kontratatu behar izatea kontratua exekutatzeko; eta antzeko beste batzuk.

2. Betekizun horiek ezin izanen dira ezkutuko zehaztapen tekniko, aukeraketa irizpide edo esleipen irizpideak izan, eta halaber, ezin izanen dute bereizkeriarik eragin, eta, horrela, kontratua burutzeko gaitasun teknikoa duen edozein lizitatzailerik bete ahal izateko modukoak izanen dira.

3. Nolanahi ere, klausula administratiboen agiritan, honakoei buruzko ohartarazpenak jaso beharko dira:

a) Kontratu honek errespetatu egin behar ditu lanari, Gizarte Segurantzari eta lan-osasun eta segurtasunari buruzko xedapenak (lege, araudi eta hitzarmenetakoak direla ere), batik bat enpresa kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru txikiena duen azken hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako baldintzak.

b) Eskaintza ekonomikoak egokia izan behar du esleipen-hartzaileak aurre egin ahal izateko kasuan kasuko hitzarmen sektorialaren aplikaziotik heldu den kostuari; jasotako soldaten orduko prezioak ezin izanen dira inolaz ere izan hitzarmeneko orduko prezioak gehi gizarte segurantzako kostuak baino txikiagoak.

c) Zerbitzuen emakidaren kasuan, kontratazioa, kasua bada, gutxienik hiru hileko antzintasuna duten langile guztien subrogazioa bermatzeko baldintzapean eginen da, beste enpresa batekoak izanagatik ere, kontratuko jardura egiten ari badira; enpresario berria aurrekoaren eskubide eta betebeharrak laboraletan eta Gizarte Segurantzarekikoetan subrogatuta geratzen da, pentsio konpromisoak barne, araudi espezifikoan aurreikusitakoaren arabera, eta oro har, gizarte-babes osagarriari buruz bere gain hartu ahal izan dituen betebeharrak dagokienez. Kontratua esleitu zaion enpresak kontratuaren zati bat besteren esku uzteko aukera dagoela aurreikusiz gero, hirugarren enpresa horrek jardura hori egiten zuten langile guztiak subrogatu beharri dagokionez; enpresario berria aurrekoaren eskubide eta betebeharrak laboraletan eta Gizarte Segurantzarekikoetan subrogatuta geratzen da, pentsio konpromisoak barne, araudi espezifikoan aurreikusitakoaren arabera, eta oro har, gizarte-babes osagarriari buruz bere gain hartu ahal izan dituen betebeharrak dagokienez.

4. Betekizun horiek betetzen ez badira, kontratazio organoak aukeran izanen du:

a) Kontratua suntsiaraztea, kontratistak bere erruz kontratua ez betetzeagatik, eta kontratistari foru lege honen babesean egiten den edozein lizitazio deialditan lizitatzeko eskubidea kentzea, bi urterako.

b) Kontratuaren gauzatzeari eustea, kontratuaren prezioaren ehuneko 20ko zigorra ezarrita».

Zioak: Foru lege proposamenaren edukia Nafarroako antolamendu juridikoari egokitzea.

3. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

1. artikuluan aldaketa-proposamenak egiteko zuzenketa:

“1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da izaera sozialeko zenbait eskakizun ezartzea, zeinak, ezarri beha-

reko edo ezar litezkeen beste eskakizun batzuk gorabehera, nahitaez sartu beharrekoak izanen baitira Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publikoa osatzen duten entitateen kontratazio organoek egiten dituzten kontratazio-prozesuetan”.

Zioak: Aurkeztutako zuzenketaren helburua da legegintzako herri-ekimena (2681 du Erregistroko sarrera-zenbakia, eta espediente zenbakia, berriz, 8-13/PRO-00050) egokitzea sustatzaileek adierazitako irizpide teknikoetara.

4. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Arloko estatuko legediari buruzko erreferentzia bat da, baina hura ez da Nafarroan aplikatzekoa.

5. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. artikulua beste testu hau izan dezala proposatzen dugu:

“2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Foru lege honen aplikazio-eremua Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 3. artikuluan ezarritako bera izanen da, eta, ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publikoaren entitate guztiek eginiko kontratazioei izanen zaie aplikatzekoa; Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publikotzat joko dira Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioa, erakunde autonomoak, sozietate publikoak, fundazioak eta partzuergoak, bai eta Nafarroako Toki Administrazioa ere.”

Zioak: Kontratuei buruzko Foru Legea aldatzeko proposamenarekin bat, zehazten dugu proposamen berri honen aplikazio-eremua 6/2006 Foru Legeak jasotako bera dela.

6. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

2. artikuluan aldaketa-proposamenak egiteko zuzenketa:

“2. artikulua. Aplikazio-esparru objektiboa.

Foru lege honetako xedapenak aplikatuko zaizkie Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publikoaren entitateek eginiko kontratazio guztiei, zeinak Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 3. artikuluan baitaude araututa.”

Zioak: Aurkeztutako zuzenketaren helburua da legegintzako herri-ekimena (2681 du Erregistroko sarrera zenbakia, eta espediente zenbakia, berriz, 8-13/PRO-00050) egokitzea sustatzaileek adierazitako irizpide teknikoetara.

7. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Legearen aplikazio-eremu berriaren zehaztapenarekin, uste dugu behar bezain argi gelditzen dela. Gainera, kentzea proposatzen dugun 3. artikulua esaten duen ia dena jasota dago 2. artikuluan.

8. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa proposamenaren edukia Nafarroako legedian sartzeko, beste zuzenketa batzuetan aurreikusten den bezala.

9. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 49. artikulua aldaketa.

1. Obra baten kontratazioa arautuko duten klausula administratibo partikularren agiriek esleipen-irizpide gisa jasoko dute obra exekutatzeko kontratatuko diren langileen gutxieneko kopurua, bai eta kontratuak irauten duen bitarte guztian aplikatu beharko diren lan-baldintzak, eta zer sektore- edo enpresa-hitzarmen aplikatuko zaien kontratua exekutatu bitartean.

2. Laguntza-kontratu bat izatekoa den zerbitzu baten kontratazioa arautuko duten klausula administratibo partikularren agiriek esleipen-irizpide

gisa jasoko dute zerbitzua emateko kontratatuko dituzten langileen gutxieneko kopurua, bai eta kontratuak irauten duen bitarte guztian aplikatu beharko diren lan-baldintzak, eta zer sektore- edo enpresa-hitzarmen aplikatuko zaien kontratua exekutatu bitartean.

Lehenagotik ematen ari ziren zerbitzuen kasuan, eskaintzak egiten dituztenei baldintzetan exijituko zaie, eta baloratu ere bai beraz, zehaztu ditzatela langileen subrogazio-baldintzak, subrogazio hori egin behar baldin bada aplikatu behar delako Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 44. artikulua edo kasuan kasuko hitzarmen kolektiboa, edota hala dagoelako ezarrita baldintzetan.

3. Hornidura baten kontratazioa arautuko duten baldintza-agiriek esleipen-irizpide gisa jasoko dute langileek beren lana egiteko izanen dituzten lan-baldintzak, kontuan izan gabe lan hori Nafarroako Foru Komunitatean bertan eginen duten edo kanpoan.

4. Articulo honetako 1., 2. eta 3. idatz-zatietan ezarritakoaren ondorioz, lizitatzzaileek eskainitako prezioa nahikoa izanen da enpresek kontratuaren exekuzioarekin lotutako lan-kostuei aurre egiteko, kontratazio-agirietan ezarritakoaren arabera egin diren eskaintzak oinarri.

Exijentzia horiek ere aplikatzekoak izanen dira baldin eta esleipena hartzen duen enpresak hiru-garrenekin kontratatzen badu kontratu osoaren edo zati baten gauzatzea.

5. Kontratistak ez baditu betetzen artikulua honetako 1., 2. eta 3. idatz-zatietan ezarritakoaren ondorioz kontratazio-agirietan sartzeko diren klausula sozialak, kontratazio-organoak ondokoak izanen ditu aukeran:

a) Kontratua suntsiaraztea eta kontratista Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioarekin kontratatzeke ezgaitzea 5 urterako.

b) Kontratua kontratista berak exekutatzeko jarrai dezala, baina kontratuaren prezioaren ehuneko 35eko zigorra ezarrita.

Kontratua suntsiaraztea erabakitzen badu, kasuan kasuko administrazioak kontratuaren falta den zatia lizitazioan bigarren gelditu zen enpresari esleitzen ahalko dio, edo, enpresa horrek uko egiten badiu, sailkapenean hurrengoak izan zirenei, sailkapen-ordenan.

6. Administrazio klausula partikularren agirietan, aurreko idatz-zatietan aipatu direnez gain, beste betekizun sozial edo ingurumenaren arloko zehatz batzuk ezartzen ahalko dira, kontratuaren

edozein alderdi eta edozein fase exekutatzeko moduari buruzkoak. Esate baterako, ontzi, bilgari edo produktu erabiliak berreskuratu edo berriz erabiltzea; produktu edo zerbitzuen efizientzia energetikoa; produktuak berriz erabil daitezkeen ontzietan ematea; kontratistaren kargura hondakinak edo produktu erabiliak jaso eta birziklatzea; luzaroko langabeei lana eman beharra; gazte eta langabeentzako prestakuntza jarduerak kontratistaren kargura antolatzea; sexuen arteko berdintasuna sustatzeko edo etorkinak integratzeko neurriak hartzea; lege ezarritako gutxieneko kopurua baino pertsona ezgaitu gehiago kontratatu behar izatea kontratua exekutatzeko; eta antzeko beste batzuk.

7. Betekizun horiek ezin izanen dira ezkutuko zehaztapen tekniko, aukeraketa irizpide edo esleipen irizpideak izan, eta halaber, ezin izanen dute bereizkeriarik eragin, eta, horrela, kontratua exekutatzeko gaitasun teknikoa duen edozein lizitatzailerik bete ahal izateko modukoak izanen dira.

8. Artikulu honetako 6. idatz-zatian jasotako eskakizunak ez badira betetzen, kontratazio-organok ondokoak izanen ditu aukeran:

a) Kontratua suntsiaraztea, kontratistaren ez-betetze erruzkoagatik, eta kontratista bi urterako ezgaitzea foru lege honen babesean egiten den edozein lizitazio deialditan parte hartzeko.

b) Kontratua kontratista berak exekutatzeko jarrai dezala, baina kontratuaren prezioaren ehuneko 20ko zigorra ezarrita.

Zioak: Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen 49. artikulua aldatzen da, kontratazio-agirietan edo klausula administratibo partikularren agirietan sar daitezkeen enpleguaren egonkortasuna eta lan-baldintza duinak bermatuko dituzten klausula sozialak. Gainera, hori ez betetzeak izanen dituen ondorioak planteatzen dira.

10. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

3. artikuluan aldaketa-proposamenak egiteko zuzenketa:

“3. artikulua. Aplikazio-esparru subjektiboa.

1. Foru lege hau Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publikoa osatzen duten entitateen kontratazio organo guztiei aplikatu beharrekoa izango da.

2. Foru lege honen ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publikotzat hartuko da Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 2. artikuluan araututakoa.”

Zioak: Aurkeztutako zuzenketaren helburua da legegintzako herri-ekimena (2681 du Erregistroko sarrera-zenbakia, eta espediente zenbakia, berriz, 8-13/PRO-00050) egokitzea sustatzaileek adierazitako irizpide teknikoetara.

11. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

II. kapituluaren izenburua aldatzeko zuzenketa. Hona proposatutako izenburu berria:

“II. kapitulua. Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publikoaren kontratu etako izaera sozialeko gutxieneko eskakizunak.”

Zioak: Aurkeztutako zuzenketaren helburua da legegintzako herri-ekimena (2681 du Erregistroko sarrera-zenbakia, eta espediente zenbakia, berriz, 8-13/PRO-00050) egokitzea sustatzaileek adierazitako irizpide teknikoetara.

12. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Legegintzako herri-ekimenean planteatutakoa jasota dago 49. artikuluan aurreko aldaketan.

13. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa proposamenaren edukia Nafarroako legedian sartzeko, beste zuzenketa batzuetan aurreikusten den bezala.

14. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

4. artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«4. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 51. artikulua aldaketa.

“51. artikulua. Kontratua esleitzeko irizpideak.

1. Kontratuak esleitzeko oinarriko irizpideak honako hauek izanen dira:

a) Eskainitako prezioa soilik.

b) Gainerako kasuetan, eskaintza onuragarriena zein den zehazteko, kontratuaren xedearekin lotura duten irizpideak erabiliko dira, eta lehentasuna emanen zaie, balio-judizioaren peko irizpideen aurretik, formula bidez baloratzeko moduko irizpideei; puntuazioaren ehuneko 50 gutxienez, irizpide horien bidez emanen da.

Irizpideak zorroztasunez definituko dira, beren ponderazio erlatiboa zehaztuta, eta lotuta egon beharko dute bai kontratuaren xedearekin, bai hurrengo hauekin ere: haren kalitatea eta kalitatea bera kontrolatzeko tresnak; prezioa; eskaintzaren balio teknikoa; ordeko piezak lortzeko aukera; ezaugarri estetiko eta funtzionalak; ingurumen-ezaugarriak; funtzionamenduaren kostua; errentagarritasuna; antolamendua; kuantifikazioa eta kontratua exekutatzear arduratuko diren langileen esperientzia, enplegatutako langileen kalitateak kontratuaren betetzean garrantzizko eragina izan dezakeen kasuan; salmenta ondorengo zerbitzua eta laguntza teknikoa; eta entregatzeko baldintzak, nola baitira entregatzeko data, prozesua eta epea edo exekuzio-epea. Hobekuntzak aurkezteko aukera baloratzen bada, adierazi egin beharko dira hobekuntza horien baldintzak, mugak, modalitateak eta aski identifikatzeko bidea emanen duten ezaugarriak, eta kontratuaren xedearekin zerikusi zuzena izan beharko dute.

Foru lege honen 49. artikuluan aipatzen diren esleipen-irizpideek guztizko puntuazioaren ehuneko 15eko gutxienerako ponderazioa edukiko dute. Obra-kontratuetan, gutxienerako ponderazioa, orobat, guztizko puntuazioaren ehuneko 15ekoa izanen da.

Kontratazio-organoak, aparteko kasuetan, jo ahalko du kontratuaren ezaugarriak ez direla egokiak, dela formulen bitartez lor litezkeen irizpideen ehuneko 50ko gutxienerako ezartzeko, dela izaera sozial edo ingurumenekoa duten esleipen-irizpideak biltzeko, edo haiei aurreko idatz-zatian aipatutako gutxienerako baino ponderazio txikiagoa esleitu ahalko die. Kasu horietan, komeni ez izatearen arrazoiak espedienteari gehituko zaion txosten ziodun batean justifikatu beharko dira.

2. Kontratua eragin duen interes publikoa zein den, contratazio organoek hartarako irizpide egokiak erabiliko dituzte. Horrela:

a) Eskainitako prezioa elementu erabakigarri bakarra bada, hura soilik erabiliko da esleipenerako irizpide gisa. Betiere emakida kontratuak eskaintza onuragarriari esleituko zaizkio.

b) 49. artikuluan jasotzen diren betekizunekin bat, eta administrazio klausula partikularren orrietan alde aurretik definituta, aurkeztu den eskaintzaren gizarte-ezaugarriari buruzko irizpideak jaso ahalko dira.

c) Administrazio klausulen orrietan alde aurretik definituta, eta kontratatu beharreko prestazioen erabiltzaile edo onuradun gisa azaltzen diren populazio-maila bereziki kaltetuen beharrezkoak asetzea helburu, beharrezko horiei erantzuten dieten irizpideak jasoko dira, hala nola ezgaitasuna duten pertsonen, lan merkatuan kaltetutakoen eta enplegua kolokan duten zuzendurak nahiz gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzera, Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmenak betearaztera edo pertsona ororentzako irisgarritasun eta diseinu unibertsaleko irizpideak bermatzera zuzendurak.

3. Administrazio klausula partikularren orrietan ezarritako esleipen irizpideak aplikatuta bi lizitazioak edo gehiagok puntuazio bera lortzen dutenean, berdinketa hausteko ondoko irizpideak hartuko dira kontuan, hurrenkera honetan: langile ezinduen ehunekorik handiena duen enpresa, enpresako langileen ehuneko 3k, gutxienez, ezgaitasunen bat baldin badu; halakorik ezean, edo berdinketak baldin badirau, behin-behineko langileen ehunekorik txikiena duen enpresa, enpresaren plantillan behin-behineko langileak ehuneko 10 baino gehiago ez badira; eta halakorik ezean, edo berdinketak baldin badirau, genero arloko praktika onak egiten dituela frogatzen duen enpresa.

Horretarako, contratazio mahaiak edo kontratua kudeatzen duen unitateak behar diren agiriak eskatuko dizkie enpresa ukituei, eta gutxienez bost eguneko epea emanen die agiriok aurkezteko.

Aurreko irizpide horiek aplikatu ondoren berdinketak irauten badu, zozketaren bidez hautsiko da”».

Zioak: Kontuan izanda 51. artikulua esleipen-irizpideei buruzkoa dela, testu berri honekin honakoa lortzen da: enpresen eskaintzei buruzko balorazioa egin dadila, neurri handi batean, formulen bitartez, irizpide subjektiboei atea ixteko asmoz. Hau da, irizpide objektiboei eman nahi zaie lehentasuna. Gainera, artikulua honetan aipatzen dira 49. artikuluan, planteatutako aldaketaren bidez, sartu nahi diren baldintza berriak; contratazio-organoek determina litzaketan salbuespenak justifikatzeko

betebeharra aipatzen da, eta pertsona behartsuen –krisiaren ondorioz behin-behinekotasunean geratu direnen– egoerei lotutako beste irizpide sozial batzuk ere sartzen dira, bai eta ikuspuntu soziale-tik interesgarriak diren beste zenbait elementu ere.

15. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

4 artikulua izenburua aldatzeko zuzenketa. Hona proposatutako izenburu berria:

“4. artikulua. Enpresa kontratisten gutxieneko lan-baldintzei buruzko izaera sozialeko eskakizunak”

Zioak: Aurkeztutako zuzenketaren helburua da legegintzako herri-ekimena (2681 du Erregistroko sarrera-zenbakia, eta espediente zenbakia, berriz, 8-13/PRO-00050) egokitzea sustatzaileek adierazitako irizpide teknikoetara.

16. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez aipatzen diren klausulak jada sartu egin dira 49. eta 51. artikuluen aldaketa bidezkoen bitartez, bai eta azpikontratazioaren arloa dela eta 110. artikuluan zehazten diren aldaketan bitartez ere –artikulu hori ere berrikusi da–.

17. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa proposamenaren edukia Nafarroako legedian sartzeko, beste zuzenketa batzuetan aurreikusten den bezala.

18. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat, 5.a, gehitzeko zuzenketa.

«5. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 110. artikulua aldaketa: Azpikontratazioa.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 110. artikulua hurrengo idatz-zatiak gehitzen zaizkio:

“5. Inolaz ere ezin izanen du kontratistak kontratuaren exekuzio partziala hitzartu antolamendu juridikoaren bidez kontratatzeke ezgaituta dauden pertsonekin, edo Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 18. artikuluan bildutako kasuetako batean daudenekin.

6. Kontratistak langileen ordezkari azpikontratazioaren berri eman beharko die, lan-legeriarekin bat etorritik.

7. Kontratazio-organismoek kontratistari inposatu ahalko diote, iragarkian edo baldintza-agirietan hori ohartarazita, prestazioaren parte jakin batzuk, guztira aurrekontuko kopuruaren ehuneko 50 gaintzen ez dutenak, berarekin loturarik ez duten hirugarrenekin azpikontratatzeke, osotasunaren barruan substantibotasun bereki bat daukatenean, haiek bereiz exekutatzeko bideratzen duena, dela lanbide-gaitasun jakin bat duten enpresek egin beharrekoak direlako, dela haiek egitea esleitu ahal zaielako horretarako sailkapen egokiaren jabe diren enpresei.

Betebehar hori berariaz bideratuko da irabazi asmorik gabeko enplegu zentro berezietan eta laneratze zentroetako kontratuaren kontratazio partzialera.

8. Azpikontratistek ez dute inolaz ere ekintza zuzenik izanen administrazio kontratatzailearekiko, kontratistak haiekin hartutako betebeharrangatik, kontratu nagusiaren eta azpikontratuen exekuzioaren ondorioz.

9. Finkatutako epeak ezin izanen dira kaltegarriagoak izan 114. artikuluan ezarritakoak baino Administrazioaren eta kontratistaren arteko harremanetarako, eta kontatzen hasiko dira azpikontratatistaren edo hornitzailearen faktura kontratista nagusiak onesten duen datatik aurrera, data eta zein aldiri dagokion adierazita”.

Zioak: Langile azpikontratatistak babestea kontratista nagusiaren ondoz ondoko kontratazioetatik.

Azpikontratazioa ezarri ahal izatea enpresa txiki eta ertainei eta enplegu zentro berezi eta laneratze zentroei mesede egiteko.

Estatuko legedian jada aurreikusita dagoen ekintza zuzenaren debekua jasotzea Nafarroako zalantzei konponbidea emateko (ekintza zuzena: azpikontratatista Administrazioaren kontra jotzen du kontratistaren kontra jo beharrean).

Exijitzea azpikontratistei ordaintzeko epea izan dadila legez Espainia osoan ezarrita dagoena, eta ez dakiela aldi luzeetan ordaindu ("120 egunera" eta antzeko formulak erabiliz).

19. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

5 artikulua izenburua aldatzeko zuzenketa. Hona proposatutako izenburu berria:

"5. artikulua. Azpi-kontratazioari buruzko izaera sozialeko eskakizuna"

Zioak: Aurkeztutako zuzenketaren helburua da legegintzako herri-ekimena (2681 du Erregistroko sarrera-zenbakia, eta espediente zenbakia, berriz, 8-13/PRO-00050) egokitzea sustatzaileek adierazitako irizpide teknikoetara.

20. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

III. kapituluaren izenburua aldatzeko zuzenketa. Hona proposatutako izenburu berria:

"III. kapituluua. Izaera sozialeko eskakizunak ez betetzea"

Zioak: Aurkeztutako zuzenketaren helburua da legegintzako herri-ekimena (2681 du Erregistroko sarrera-zenbakia, eta espediente zenbakia, berriz, 8-13/PRO-00050) egokitzea sustatzaileek adierazitako irizpide teknikoetara.

21. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 49. eta 51. artikuluen aldaketan sartutako klausula sozialen ez-betetzeen ondorioak klausula horietan aipatu dira jada, eta ondorioak areagotu egin dira: kontratuak suntsiaraztea edo kontratu publikoei buruzko legeak lehenago ezartzen zituenak baino isun ekonomiko askoz handiagoak.

22. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa proposamenaren edukia Nafarroako legedian sartzeko, beste zuzenketa batzuetan aurreikusten den bezala.

23. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa.

"7. artikulua. Esleipenen gardentasun publiko eta instituzionala

Lizitazio eta kontratazio prozesuetako klausula administratiboen agiritan, adierazpen bat jasoko da, zeinaren bidez lehiakideek beren borondatez onartuko duten gardentasun instituzionala emanen dietela lizitazio-, esleipen- eta exekuzio-prozesutik heldutako datu guztiei, prozesu hori amaitu arteko datu guztiei alegia"

Zioak: Nafarroako Gobernuak behin eta berriz ukatzen dio Parlamentuari hark hirugarrenekin izandako kontratu-esleipen- eta -exekuzioen gaineko informazioa, argudiatuta merkataritzaren arloko legediaren menpeko enpresa pribatuak direla eta horien adostasuna beha duela, beraz, Parlamentuak eskatutako informazioa emateko.

Beharrezkoa da kontratuak edo esleipenak hartzen dituztenen adostasuna jasotzea, kontratu edo esleipen horiek gardentasun publikoa izan dezaten.

24. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa.

"8. artikulua. Ingurumenaren arloko balorazioa eranstea kontratazio publikoko prozesuetan.

Administrazio publikoen kontratazio-prozeduretan, ohartaraziko da lehian parte hartzen dutenek aukera izanzen dutela ingurumenaren arloko alderdiak eransteko beren eskaintza teknikoei.

Administrazio publikoek, aurkeztutako eskaintza teknikoetan, aintzat hartu beharreko atalzat hartuko dituzte ingurumenaren arloko alderdiak"

Zioak: Administrazio eta enpresa pribatu moderno guztiek ezarri asmo dugu ardura sozial eta enpresariala, eta, ardura hori arautzen duten irizpideen artean, ingurumenaren errespetu eta babesarena jotzen da dela ardura hori egituratu behar duten ardatzetako bat. Horregatik, enpresa lizitatzailerik ingurumena tratatzeko eta errespeta-tzeko dituzten barne-prozedurek agertu beharra daukate aurkeztutako dokumentazioan, eta beste elementu bat gehiago izanen dira eskaintza tekniko-a baloratzean.

25. ZUZENKETA

MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA

FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«Xedapen gehigarria. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 49. artikulua luaren aldaketa.

Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 49. artikulua aldatzen da. Honako testua izanen du:

“49. artikulua. Kontratuak gauzatzeari buruzko eskakizun sozialak edo ingurumenaren arlokoak.

1. Klausula administratibo partikularren agirietan, betekizun sozial edo ingurumenaren arloko zehatzak ezartzen ahalko dira kontratua exekutatzeke moduari buruz. Esate baterako, bilgarri edo produktu erabiliak berreskuratu edo berriz erabiltzea; produktu edo zerbitzuen efizientzia energetikoa; produktuak berriz erabil daitezkeen ontzietan ematea; kontratistaren kargura hondakinak edo produktu erabiliak jaso eta birziklatzea; luzaroko langabeei lana eman beharra; enpresa kontratistek gutxienezko lan-baldintza zehatzak bete beharra, bai beren langileekin eta bai azpikontratutakoekin, edota, kasua bada, lehenagoko kontratistetatik heldutako langile subrogatuekin; gazte eta langabeentzako prestakuntza jarduerak kontratistaren kargura antolatzea; sexuen arteko berdintasuna sustatzeko edo etorkinak integratzeko neurriak hartzea; lege ezarritako kopurua baino pertsona ezgaitu gehiago kontratatu behar izatea kontratua exekutatzeke; eta antzeko beste batzuk.

2. Betekizun horiek ezin izanen dira ezkutuko zehaztapen tekniko, aukeraketa irizpide edo esleipen irizpideak izan, eta halaber, ezin izanen dute bereizkeriarik eragin, eta, horrela, kontratua exekutatzeke gaitasun teknikoa nahiz gaitasun ekonomiko eta finantzarioa duen edozein lizitatzailerik bete ahal izateko modukoak izanen dira.

3. Betekizun horiek beteketzen ez badira, kontratazio-organoak ondokoak izanen ditu aukeran:

a) Kontrata suntsiaraztea, kontratistaren ez-betetze erruzkoagatik, eta kontratista bi urterako ezgaitzea foru lege honen babesean egiten den edozein lizitazio deialditan parte hartzeke.

b) Kontrata kontratista berak exekutatzen jarrai dezala, baina kontratuaren prezioaren ehuneko 20ko zigorra ezarrita”».

Zioak: Orain arte, bazegoen zenbait gaitan aukera lege ezarritako gutxienezko gainetiko eskakizunak ezartzeko klausula administratibo partikularren agirietan; orain, beste aukera bat gehitzen da, hau da, eskakizun gehigarri horietan jaso daitezela izapidetzen ari den legegintzako herri-ekimenean jasotako gaiekin zerikusia duten eskakizunak.

Gure taldea bat dator legegintzako herri-ekimen honek lortu nahi dituen helburuekin, baina ukaezina da, zoritxarrez, idatzita dagoen moduan konstituzionaltasunaren inguruko zalantzak sorrazten dituela. Bai Gobernuaren txosten juridikoa, bai Nafarroako Parlamentuarena oso argiak dira horri dagokionez. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak, orain gutxi, epai bat eman du Bizkaiko Foru Aldundiak onetsitako jarraibide bat zela-eta, eta bide beretik jo du.

Proposatutako zuzenketa honekin, kasuan kasuko kontratazio-organoaren esku uzten duen neurrian, eta argi utzita ez duela bazterkeriarako elementu bat izan behar, ezta ezkutuko inolako esleipen-irizpide bat ere, eta, edozein modutan, ez duela inongo eragozpide izan behar eskatutako gaitasun tekniko nahiz ekonomiko-finantzarioa dutenentzat, uste dugu gaindi litezkeela, agian, iragazki juridikoak.

26. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Legegintzako herri-ekimenaren izenburua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke.

“Kontratazio publikoan zenbait gizarte-eskakizun sartzeko legegintzako herri-ekimena”

Zioak: Aurkeztutako zuzenketaren helburua da legegintzako herri-ekimena (2681 du Erregistroko sarrera-zenbakia, eta espediente zenbakia, berriz, 8-13/PRO-00050) egokitzea sustatzaileek adierazitako irizpide teknikoetara.

27. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Legearen titulua aldatzeko zuzenketa.

Beste izenburu bat jartzea proposatzen da. Hona:

“Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena klausula administatratiboan agiritan klausula sozialak sartzeko”

Zioak: Gure ustez, kontratazio publikoan klausula sozialak erabiltzeari buruzko lege berri bat onetsi beharrean, hobe da Kontratuari buruzko Foru Legea aldatzea, eta indarrean den lege hori aldatuta lortzea helburua.

Handienerako eskumenik ez dugunez, uste dugu arrazoizkoa dela kontratuari buruzko gure legea aldatzea, eta arau horren bidez exijitzea klausula administatratiboan agiritan klausula sozialak sar daitezela, eta horien ez-betetzeak kontratuaren hutsaltzea ekar dezala edo, bestela, zehapen ekonomiko handi bat.

28. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

Beste zioen azalpen bat jartzea proposatzen da. Hona:

“Enpleguaren ikuspuntutik hain zailak diren uneotan, kontratazio publikoan

enpleguaren egonkortasuna eta lan-baldintza duinak bermatuko dituzten klausula sozialak sartzeari lehentasunezkoa izan behar luke Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publiko guztientzat.

Hori da, funtsean, foru lege honek planteatzen duena: konpontzea azken urteotan detektatzen joan diren problema sail bat, ondorio izan dutenak enpleguaren ezegonkortasuna eta lan-baldintzen okertze orokor bat, bereziki azpikontratazioen kasuan, eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioarekin kontratatzen duten enpresetako langileak kaltetu izan dituenak bereziki.

Enplegu azpikontratatuaren prekarioa izatea aski arrazoi bada honelako foru lege bat bultzatzeko, bermatuko dituena, hain zuzen, gutxieneko baldintza sozialak Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoek parte hartzen duten prozesu guztietan: obrak kontratatzekeotan, herri lanak mateko kon-

tratuetan, zerbitzu publikoak kudeatzeko direnetan eta bestelako zerbitzuekin zerikusia dutenetan.

Ekimen honekin agerian gelditzen da aipatutako bide horretatik jarduteko beharra; izan ere, ekimenaren oinarria da gizartearen parte handi baten enpeinua jokamoldeak aldarazteko legegintzako herri-ekimen baten bidez, zeina bidea aurkitzen saiatzen baita egonkortasun handiagoa emateko lan-merkatuari Nafarroako Foru Komunitatean, eta arlo horretako eskumen-maila desberdinak errespetatuz egiten.

Foru lege hau mamitzen duten legegintzako herri-ekimenaren bultzatzaileek bereziki argi dute funtsezkoa dela azpikontratuaren bidez zerbitzuak zeharka kudeatzeko erabakia hartzen duten administrazio publikoek irizpide ekonomizista hutsetan ez dutela geratu behar, eta erabateko garrantzia duten beste faktore batzuk ere kontuan izan behar dituztela, esaterako kontratuaren xede den zerbitzuak ematen edota jarduerak gauzatzen dituzten lan-baldintzak. Honek guztiak aukera emango du, zalantzarik gabe, eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

Nabarmendu behar da Espainiako Gobernuak egin duen azken lan-erreformak ez duela hobekuntzarik ekarri kontratazioetan enpleguari dagokionez; zailtasun handi eta kaltegarriak erantsi dizkie langileen interesei. Horregatik, lehentasunezkoztat jotzen dugu, errespetatuta betiere beste administrazio batzuen legegintzagaitasuna, kontratu publikoak arautzen dituzten klausula administatratiboan agiritara baldintza batzuk eramatea balioko dutenak ez soilik enpresei puntu gehiago emateko klausula sozialak eta lan-baldintza duinak dituztelako, baizik eta, halaber, baldintza horien urraketarik gertatzen bada, hori aski arrazoi izan dadin kontratuak hutsaltzeko.

Azken batean, gure ustez, zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko batean, botere publikoek beren jardunean aintzat hartu beharreko helburua dute pertsonen garapena ahalbidetu eta bermatzeko gutxieneko kontratazio-baldintza batzuk finkatzea.

Asmoa da erabakitasunez jokatzeari amaiera luzatzen ari zaion krisi hau eragiten ari den problemak arintzeko, hein batean gutxienez. Nabarmena da langabezia handitzen ari dela, edo, hoberenean ere, bereziki motel murrizten, urtarorekin arabera betiere, gero berriz ere igo egiten baita; horrela, nahitaezkoa da gure aukeren arabera jardutea, saiatzeko krisi hau gizartearen eragiten ari den ondorioz gogorrenak geldiarazten.

Beraz, beharrezko jotzen dugu Nafarroako Sektore Publikoan kontratista diren enpresentzat

lan egiten duten beharginengan eragin zuzena duten bi arazo motari heltzeko mekanismoak ezar-tzea.

Batetik, aplikatu daitezkeen lan-baldintzei buruz-ko ziurgabetasuna. Arazo hori konponbidean jar-tzeko, gutxieneko baldintza gisa finkatzen dira -nahikoak eta bidezkoak direla jota- enpresa kon-tratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru txikieneko azken hitzarmeneko baldintzak. Beste-tik, enpleguaren ezegonkortasuna; izan ere, langi-le askoren itxaropen laborala lotuta baitago enplegatzaileak sinatu duen kontratu publikoaren iraupenarekin; horri aurre egiteko, exigentzia gisa sartzeko enplegua mantentzea enpresa kontra-tista aldatuagatik ere.

Horretarako, kontratazio prozesuan klausula sozialak sartzeko exigentzia ezarri behar da kasu bakoitzeko kontratazio agirien edo baldintza admi-nistratibo partikularren agirien bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publikoak parte har-tzen duten prozesu guztietan: obrak kontrata-tzekoetan, herri lanak mateko kontratuetan, zerbi-tzu publikoak kudeatzeko direnetan eta bestelako zerbitzuekin zerikusia dutenetan. Eta exijitutakoa ez bada betetzen, kontratu horiek suntsitzeko arazoitzat hartzen ahalko da.

Ondorioz, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen 49., 51. eta 110. artikulua aldatzen dira, Nafarroako Foru Komunitatearen Administra-zioarekin kontratatzen duten enpresetan enplegua-ri eta enpleguaren kalitateari eusteko berme modu honi bide emateko:"

Zioak: Uste dugu arazoizkoa dela legegintzako herri-ekimenaren zioen azalpena aldatzea, fun-tsezko zentzu berari eutsi bai, baina egokitze-ko azalpen hori planteatzen ari garen Kontratu-ari buruzko egungo Foru Legearen aldaketara. Saiatu gara bere horretan uzten funtsezkoak iruditzen zi-tzaizkigun lerroak, eta gainerakoa proposamen berrira egokitu dugu.

29. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Lauga-rron lerrokada kendu da. Honako hasiera du lerro-kada horrek: "Zehazki Kontratu Publikoaren Legea-ren Testu berrituak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-dekretuaz onartu zenak..."

Zioak: Arloko estatuko legediari buruzko erreferentzia bat da, baina hura ez da Nafarroan aplikatzekoa.

30. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

"Zioen azalpena

Estatu sozial batean botere publikoen jardune-an aintzat hartu beharreko kontua da pertsonen garapena bermatzeko gutxieneko bizi-baldintza batzuk finkatzea.

Krisi ekonomikoak kalte handia eragin du lan-merkatuan. Langabezia hazi egin da eta enplegua dutenen lan-baldintzak kasu askotan murrizketa handiak ari dira jasaten.

Horrenbestez, Parlamentu honi dagokio Nafa-rrako Foru Komunitateko lan-merkatuari ahal den egonkortasun handiena emateko formulak bilatzen saiatzea. Hain zuzen, kontratazio publikoa jardue-ra ekonomiko garrantzitsua da, eta beronetan botere publikoek esku har dezakete, kontratueta-ko gutxieneko baldintza batzuk ezarriz. Enpresa pribatuaren jardunda ere, langile askok dihardu zeharka sektore publikorako, Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen babesean eginiko kontratazioen bidez.

Lege hori da hain zuzen, Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea alegia, izaera sozialeko eskakizun xeheak sartzeko auke-ra ematen duten mekanismoak jasotzen dituen.

Beraz, beharrezko jotzen dugu Nafarroako Sektore Publikoan kontratista diren enpresentzat lan egiten duten beharginengan eragin zuzena duten bi arazo motari heltzeko mekanismoak ezar-tzea. Batetik, aplikatu daitezkeen lan-baldintzei buruzko segurtasun eza; hau bideratzeko gu-txieneko baldintza gisa finkatzen dira -nahikoak eta bidezkoak direla uste izanik- enpresa kontratis-taren jarduerari dagokion sektoreko esparru txikieneko azken hitzarmen sektorialekoak. Beste-tik, enpleguaren ezegonkortasuna, izan ere, langi-le askoren itxaropen laborala lotuta baitago enplegatzaileak sinatu duen kontratu publikoaren iraupenarekin; honi aurre egiteko exigentzia bat sartzeko enplegua mantentzea enpresa kontra-tista aldatuagatik ere.

Horretarako, kontratu publikoa egiteko proze-suan derrigor bete beharreko eduki gisa finkatzen da izaera sozialeko eskakizun jakin batzuk sar-tzea. Betebehar hau Nafarroako Foru Komunitate-ko Sektore Publikoa parte den esleipen-prozesue-tako baldintza-agirien bidez gauzatuko da. Baldintza-agiri horietan, derrigor bete beharreko

izaera sozialeko eskakizun gisa finkatuko dira gu-txienez sektoreko esparru txikieneko hitzarmen probintzialeko baldintzak errespetatzea, eta langileak subrogatzea enpresa kontratista aldatzen denean, nahiz kontratistak bere jarduera beste batekin azpikontratatzan duenean.

Aipatutako klausula sozialak urratu direla egiaztatuz gero, Administrazioak kontratua eteteko aukera izango du.”

Zioak: Aurkeztutako zuzenketaren helburua da legegintzako herri-ekimena (2681 du Erregistroko sarrera zenbakia, eta espediente zenbakia, berriz, 8-13/PRO-00050) egokitzea sustatzaileek adierazitako irizpide teknikoetara.

Foru Lege proposamena, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak Foru Lege proposamena aurkeztu du, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzekoa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 50. eta 57.c) artikuluetan aitortutako eskumenen kariak, eta Espainiako Konstituzioaren 45. artikulua betetzeko xedez –horren arabera, botere publikoek baliabide natural guztiak zentzuz erabiliko direla begiratuko dute, hala bizikalitatea babestu eta hobetu dadin, eta ingurumenazaindu eta zaharberritu–, Nafarroak legeak egin ditu ingurumenarekin lotutako zenbait arlotan, ingurumena zentzurik zabalenean hartuta.

Ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen zioen azalpenean esaten den bezala, "Espainiako Konstituzioaren 45. artikuluan, babestu beharreko ondasun kolektibo modura ageri da ingurumena...

Konstituzioaren arau berberak botere publikoei zuzendutako agindua dakar, natur baliabide guztiak zentzuz erabil daitezzen zain dezaten, alegia, bizitza kalitatea babestu eta hobetzera eta ingurumena defendatu eta lehengoratzera begira. Ingurumena, norbanakoarentzat gozagarria izanik ere, ondasun kolektibo den aldetik babestea nagusiki botere publikoen zeregina da. Horrela, natur baliabideak gehiegikeriaz eta zentzugabeki erabili edo kalterik eragin liezaioketen jardueretatik zaintzeko zeregin publikoa finkatzen da". Halatan, azken urteotan zenbait arau onetsi izan dira helburu horrekin; besteak beste, hauek: aipatutako 4/2005 Foru Legea, martxoaren 22koa, ingurumena babesteko esku hartzeari buruzkoa; 13/1990 Foru Legea, abenduaren 31koa, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzkoa; 2/1993 Foru Legea, martxoaren 5koa, basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzkoa; 7/1994 Foru Legea, maiatzaren 31koa, animaliak babesteari buruzkoa, edo 17/2005 Foru Legea, abenduaren 22koa, Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzkoa.

Langileen arloan, aspaldikoa da basozainen erregulazioari buruzko lehenengo lekukotasuna. Jada 1833an onetsi ziren mendiko langileei buruzko lehen ordenantzak, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean mendi zaindari eta zaindarioordeentzako erregelamendu bat argitaratu zen 1898an; hartara, hori izan zen Nafarroako Foru Diputazioan sortutako lehen kidegoa. Azkenik, indarrean da oraindik 132/2005 Foru Dekretua, azaroaren 3koa, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari atxikirik dauden basozainen berriazko araubidea ezartzen duena. Bestalde, maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legeko 19 bis artikulua ezarri zuenez –lege hori Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurri buruzko apirilaren 3ko 8/2002 Foru Legearen bidez aldatu zen–, zaindari nagusi nahiz mendi zaindari lanpostuan diharduten langileak B mailari atxikiko zaizkio, eta horien lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa bidez beteko dira, lanpostuan gutxienez bost urteko zerbitzua eman dutela kreditatzen duten ingurumenzainen eta mendi zaindarioordeen artetik. Orobat arautu zuen, besteak beste, mendi zaindariak eta zaindarioordeak eta ingurumeneko zaindari nagusiak eta ingurumeneko zaindariak beren mailako zerbitzuak ematera pasatu ahal izatea aukeran, administrazio edo kudeaketa lanetan, berrogeita hamabost urte betetzean.

Lortutako eskarmentuan sakondu beharra dago une honetan, baso-agenteei emate aldera zaintza-araubide bat taxutuko duen erregulazio berri bat, kudeaketarako lankidetzaren eraginkor bat, natur-ingurumenaren kontrola eta ikuskaritza, honako printzipio hauetan oinarrituta: herritar guztien ardurakidetzaren jasangarritasuna eta ingurumen arloko hezkuntza, kalitate eta efizientzia mailarik handiena lortzearen esleituta dituzten eginkizunak betetzean, zeinak ziurtatuko baitu espezializazio-alorrak egotea eta lanbide-karrerarekin jarraitu ahal izatea.

Artikulu bakarra. Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatuta gelditzen da, honako testu hau izanen duen VI. titulua gehituta hari:

“VI. TITULUA
Baso-agentek
I. KAPITULUA
Printzipio orokorrak

94. artikulua Definizioa.

1. Baso-agenteen bidez eginen dira ikuskaritza eta salaketa lanak nahiz foru lege honetan araututako arloetako kudeaketarako lankidetzakoak, baso-agentek ingurumenaren zaintza, babes eta prebentzio integraleko kidego bat osatzen baitute.

2. Baso-agentek agintaritzako eta polizia judicial generikoko agentetzat hartuko dira. Baso-agentek ikuskaritza eta salaketa aktetan egiaztatu eta formalizatutako gertakariak egiazkotzat hartuko dira, galarazi gabe interesdunek beren eskubide eta interesen alde aurkez ditzaketan frogak.

95. artikulua Jarduteko printzipioak.

1. Baso-agenteen jarduketek uneoro bete beharko dituzte ondoko printzipioak: eraginkortasuna eta azkartasuna, berehalakotasuna, koordinazioa, plangintza, proportzionaltasuna, hierarkia eta mendekotasuna.

2. Baso-agentek, beren eginkizunak betetzean, segurtasun indar eta kidegoekin lankidetzan jardunen dira.

3. Baso-agentek ardua pertsonal eta zuzena izanen dute beren jardun profesionalean egiten dituzten ekintzei dagokienez, 1. idatz-zatien zerrendatutako lege-arauak, erregelamendu-arauak eta printzipioak urratzen dituztenean, ezertan galarazi gabe administrazio publikoei legokiekien ondare-erantzukizuna.

4. Ulertzen da baso-agentek beren eginkizunak betetzen ari direla dagozkien eginkizunekin

lotutako edozein jarduketa-motatan esku hartzen dutenean, baita zerbitzutik libre daudenean ere, baldin eta aurretiaz baso-zain direla kreditatzen badute.

96. artikulua Baso-agenteen ahalmenak.

Baso-agentek honako hauek egiteko ahalmena dute:

a) Ikuskatzen ahal diren tokietan noiznahi eta aldeztu aurretik abisatu gabe libreki sartzeko eta bertan egoteko, egoitzaren bortxaezintasuna errespetatuz betiere. Ikuskaritza-bisita egitean, beren presentziaren berri eman beharko diote ikuskatutako pertsonari edo haren ordezkariari, non eta ez duten uste berri-emate horrek beren eginkizunen arrakasta kaltetzen ahal duela.

b) Lege-xedapenak behar bezala betetzen ari direla egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duten edozein ikerketa-eginbide, azterketa nahiz proba egiteko.

c) Substantzia-laginak eta materialak hartzeko edo ateratzeko, neurketak egiteko, argazkiak, bideoak edo irudien grabazioak lortzeko, eta krokisak eta planoak egiteko, baldin eta titularrari edo haren ordezkariari horren gaineko jakinarazpena egiten bazaio, salbu eta urgentzia-kasuetan, zeinetan jakinarazpena geroago egin ahalko baita.

II. KAPITULUA
Eginkizunak

97. artikulua Zaintzaren, ikuskaritzaren eta kudeaketa-lankidetzaren arloetako eginkizunak.

1. Ingurumenari buruzko legedi indardunaren kariaz, baso-agenteei dagokie zaintza, ikuskaritza eta kudeaketa-lankidetzaren arloetako ondoko arloetan:

a) Baso-ondarea eta erabilera publikokotzat deklaraturako mendiak, Nafarroako baso-ondareko finken eta Foru Komunitateak kudeatutako finken kudeaketa barne.

b) Baso-suteak, haien prebentzio, zaintza, detekzio nahiz ikerketa lanak eta kalteen balorazioa barne.

c) Naturgune babestuak: Nafarroako Naturguneen Sarea, Natura 2000 Sarea (Kontserbazio Bereziko Eremuak eta Batasunaren Intereseko Lekuak) nahiz flora eta fauna babestua zaintzeko neurriekiko beste edozein naturgune. Halaber, isilpeko jardunbideen aurkako borroka.

d) Abeltzaintza eta Santiago Bidea. Haien osotasunaren nahiz haien eragiten dieten jardueren kontrola, eta haien mantentzerako lankidetzaren

e) Basa fauna eta flora, faunaren eta floraren kudeaketa-lan, zentsu eta inbentarioak egiteko lankidetzaren barne; fauna bildu eta Animalia basatiak sendatzeko zentrorako eramateko lankidetzaren barne; horiek sendatzen lagunduz; eta habitaten zaintza; bereziki, katalogatuena.

f) Oihan-baliabideak, mendietako jardueren kontrola barne; basoberritzeen jarraipena eta horiei buruzko irizpena; mendien babesaren barne; oihan-osasuna: izurrien eta gaixotasunen zaintza, prebentzioa, jarraipena eta tratamendua; baso-ekosistemen defentsa eta prebentzioa; aprobetxamenduak: baso-aprobetxamenduen zaintza eta kontrola eta aholku ematea horien titularrei, bai mendi publikoen bai pribatuen kasuan, eta baso-aprobetxamenduak baimendu aurreko operazioak egitea, kasuan kasuko jarraibide teknikoari jarraituz.

g) Ehiza eta arrantza jarduerak, ehiza- eta arrantza-populazioen jarraipena barne, bai eta toki entitateei eta ehiztari- nahiz arrantzale-elkarteei aholku ematea beren jarduerari dagokionez, besteak beste.

h) Natur ingurunean nahiz nekazaritza- eta hiri-ingurunean dauden etxeko animalien zaintza, kontrola, ikuskaritza eta babesaren barne.

i) Aterakuntzako jarduerak, horien ingurumen- inpaktuak eta natur ingurunearen atzipena.

j) Orobat eginen dituzte natur inguruneko ondare historiko, artistiko eta arkeologikoa zaindu, kontrolatu, jagon eta babesteko lanak.

k) Zaintza, kontrola, jagoletza eta babesaren barne, ekosistemei, ur kontinentalei, geomorfologiari, paisaiari nahiz natur baliabideen erabilera zuzenari eta natur ingurumena ukitzen duen orori buruz Nafarroan aplikatu beharreko lege-araudia bete dadin.

l) Fauna autoktonoko eta aloktonoko espezieen eta nekazaritza- nahiz hiri-ingurunean bereziki katalogatutako arbolaren zaintza, kudeaketarako lankidetzaren barne, kontrola eta ikuskaritza.

m) Beren lanpostuaren berezko beste edozein jarduerak, erregelamenduen arabera garatua, ingurumenari buruzko legediaren jarraipenari eta betearazpenari dagokienez agin dakiekeena.

2. Baso-agentek lankidetzaren arituko dira ur, hondakin, larrialdien artatze eta babes zibilaren arloko nahiz beren berezko eginkizunekin zerikusia duen beste edozein arlotako erakunde eskudunekin.

98. artikulua Ikerkuntza-eginkizunak.

1. Baso-agenteei dagokie ikertzea beren eskumenerako arloetan egindako arau-haustekak, horien norainokoa, zergatiak eta ustezko egileak aurkitzeko, arloko beste erakunde eskudunekin lankidetzaren barne, kasua bada.

2. Baso-agentek kasuan kasuko erakunde eskudunari igorriko dizkiote kasuko salaketak eta ikuskaritza-aktak.

99. artikulua Herritarrei informazioa eta aholku emateko eginkizunak.

1. Baso-agentek herritarrei informazioa, orientabideak, aholkuak eta ingurumen-hezkuntza emateko eginkizuna izanen dute, beren eskumenerako arloen gainerakoak, herritarrek ingurumenarekiko errespetuzko jokabideak eduki ditzaten.

2. Baso-agentek beren eskumenerako arloen gainera aholkuak emanen dizkiete nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-ustategien titularrei, natur ingurunearekin lotutako aferak behar bezala kudeatuak izan daitezten.

III. KAPITULUA Estatutua

100. artikulua Egitura

1. Baso-agentek honako egitura hierarkikoa izanen dute, mailaz maila:

- Baso-agente koordinatzailea, B mailakoa.
- Baso-agente nagusia, B mailakoa.
- Baso-agentea, C mailakoa.

2. Baso-agenten buru egonen da nagusi bat; lanpostu hori lehiaketa bidez beteko da –Foru Komunitateko Administrazioako atalburutzak betetzeko prozedura arruntaren bidez, alegia–, zeinean parte hartu ahalko baitute baso-agente koordinatzaile lanpostua betetzen dutenak.

3. Baso-agenten nagusiak baso-agentek ematen dituzten zerbitzu guztien funtzionamendu eta jardunaren gainerako zuzendaritza- eta koordinazio-eginkizuna izanen du.

4. Baso-agente koordinatzaileari dagokio baso-agenten antolamenduko eskualde- nahiz eginkizun-unitateen zuzendaritza, koordinazioa, kontrola eta ikuskaritza.

5. Baso-agente nagusiari dagokio, baso-agenten berezko exekuzio-eginkizun oinarrikoak betetzeaz gain, esleitzen zaizkion jarduketan zuzendaritza, baso-agenten gainerako agintaritza bere gain hartuz, bai eta eskarmentu berezia eta gaitasun tekniko berezia eskatzeagatik konplexuak diren lanak egitea ere.

6. Baso-agenteari dagozkio berezkoak dituen eginkizunak betetzeko exekuzio-eginkizun oinarrikoak, baso-agente nagusi baten agintepean eta gainbegiradapean.

101. artikulua Espezializazioa.

1. Baso-agentek honako espezializazio talde hauetako bati atxikiko zaizkio:

a) Baso-kudeaketa, prebentzio eta baso-suteen ikerketarako taldea

b) Bioaniztasun taldea.

c) Ehiza eta arrantza taldea.

Espezializazio talde berriak sortzen ahalko dira foru dekretu bidez, zerbitzuaren beharrianak zein diren.

2. Edozein kasutan, baso-agentek beren mailako eginkizun oinarrikoak bete behar dituzte, zein ere den atxikirik dauden espezializazio taldea.

3. Erregelamendu bidez ezarriko dira talde bakoitzaren betekizunak, hautapen-prozedurak, sartzeko eta mantentzeko baldintzak eta espezializazio alorretan sartzeko agente izangaien prestakuntza, bai eta alor bakoitzaren edukia, esleiturik dituen eginkizunak eta barne-antolamendua.

102. artikulua Sarbidea eta sustapena.

1. Titulu honetan araututako maila ezberdinetan sartzeko, funtzio publikoari buruzko legedian izaera orokorrean ezarritako baldintzak bete beharko dira, eta, horiez gain, kapitulu honetan ezarritakoak ere bai.

2. Baso-agente lanpostuan sartzeko, Ehiza eta Paisaia Baliabideetako Teknikari titulua, Baso Lanetako II. mailako Lanbide Heziketako titulua edo horren baliokidea eduki beharko da. Sarbidea oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez egiten da. Hautaprobak teorikoak eta praktikoak izanen dira. Probak gaitasun fisikoa neurtzekoak, medikoak, ezagutzakoak, trebetasunak neurtzekoak eta, oro har, izangaien egokitasuna modu objektiboan ezartzeko balio dutenak izanen dira.

3. Baso-agente koordinatzaile eta baso-agente nagusi mailerako sarbidea barne-sustapen bitartekoa izanen da, merezimendu-lehiaketa eginda. Izangaiak kreditatu egin beharko dute hiru urtez egiaz zerbitzu eman izana beheragoko hurrengo mailan, eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak antolatutako prestakuntza-ikastaro selektibo bat gainditu beharko dute.

103. artikulua Eskubideak eta betebeharrak.

1. Baso-agenteen eskubide eta betebeharrak dira funtzio publikoari buruzko legediarekin bat izaera orokorrean dagozkienak, artikulua honetan arautzen diren berezitasunekin.

2. Baso-agentek eskubidea dute urtero azterketa mediko bat egiteko, zeinean kontuan hartuko baitira haien espezialitatea eta haien lanpostuaren berezko baldintzak.

3. Baso-agentek arauzko uniforme jantzi beharko dute zerbitzua ematen ari direnean. Salbuespenez eta justifikatutako kasuetan, uniforme hori gabe bete ahalko dituzte beren eginkizunak, aldez aurretik horretarako baimena izanda. Edozein kasutan, identifikazio profesionaleko agiri bat edukiko dute, beren ekimenez edo pertsona interesdunek eskatuta erakutsi beharko dutena.

4. Baso-agentek eskubidea dute prestakuntza etengabea, espezializaziokoa, aginduzkoa edo gaurkotzekoa jasotzeko, negoziatio-organo berriazko eta parekide baten bitartez ezartzen den moduan, zeinean egonen baitira atxikita dauden esparruan ordezkariak daukaten erakunde sindikalak.

5. Baso-agentek eskubidea dute aseguru bat edukitzeko, beren lanbidean jardutean izandako istripu baten eraginez hiltzeko edo baliaezintasun osoa edo partziala pairatzeko arriskua estaltzearen.

6. Administrazioak bermatuko du baso-agentek beharrezkoa duten defentsa juridikoa, beren eginkizunak betetzean egindako jarduketan ondorioz horien aurka jarraitzen diren auzietan.

7. Baso-agentek, berrogeita hamabost urte betetzean, ondoko hauen artean aukeratu ahalko dute:

a) Jardunean jarraitu, izaera orokorrean erretiro-hartzerako ezarritako adinera heldu arte. Horretarako, osasun azterketa bat gainditu beharko dute urtero.

b) Bigarren jarduerara igaro, bere mailari dagozkion zerbitzuak emanaz, administrazio- edo kudeaketa-lanetan, barruti berean eta bere lanpostuaren lansari osagarriak mantenduz.

8. Edozein kasutan, baso-agentek bigarren jardura betetzera igaroko dira, horretarako ezarri diren lanpostuetan, baldin eta irizpen medikoaren arabera beren ahalmen psikiko eta fisikoak gutxiturik badituzte beren oinarriko eginkizunak betetzeko. Bermatuko da lehengo lansari berak jasoko dituztela lanpostu berrian, aldi baterako osagarri pertsonal bat esleituz, kasua bada".

Lehen xedapen gehigarria. Lurralde- eta eginkizun-antolamendua.

Baso-agenteen lurralde- eta eginkizun-antolamendua erregelamendu bidez ezarriko da, urtebeteko epean, foru lege honetan aipatutako espezializazio-alorrek barne.

Bigarren xedapen gehigarria. Plantilla.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak baso-agenteen kopurua zehaztu beharko du, zeina ez baita 150ekoa baino txikiagoa izanen.

Lehen xedapen iragankorra. Lanpostuak eraldatzea.

Egungo basozainak eta mendi zaindarioak "baso-agente" izena edukitzera igaroko dira. Egungo basozain nagusiak eta basozain laguntzaileak "baso-agente nagusi" izena edukitzera igaroko dira. Egungo basozain nagusi koordinatzaileak "baso-agente koordinatzaile" izena edukitzera igaroko dira.

Bigarren xedapen iragankorra. Aginte-postuak.

Foru lege hau indarrean sartzen den unean aginte-postuak betetzen dituzten langileek postu horietan jarraituko dute, eginkizun eta eskubide

eta betebeharrak berberekin, harik eta postu horien biziartekotasuna kentzen den arte.

Xedapen indargabetzailea

Indargabeturik gelditzen dira foru lege honek xedatzen duenaren aurkako maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak; bereziki, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legeko 19. bis artikulua. Foru lege hori apirilaren 3ko 8/2002 Foru Legearen bidez aldatu zen, eta 132/2005 Foru Dekretua, 2005eko azaroaren 3koa, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari atxikirik dauden basozainen berariazko araubidea erregulatzen duena.

Azken xedapenetan lehena. Foru legea garatzeko eta betearazteko gaikuntza.

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariari eta Ingurumeneko kontseilariari ahalmena ematen zaie bakoitzak bere eskumenen esparruan eman ditzan foru lege hau garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren xedapen guztiak.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da “Gazte Bermea” izeneko programan izena emateko irizpideak eta moduak birdefinitzera eta epeak berrirekitzera, programa horren onuradunen kopurua handitzeko xedez.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2014ko abenduaren 4an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ‘Gazte Bermea’ izeneko programan izena emateko irizpideak eta moduak birdefinitzera eta epeak berrirekitzera, programa horren onuradunen kopurua handitzeko xedez.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

1. Izena emateko irizpideak eta moduak birdefini ditzan eta epeak berrabiaraz ditzan, Gazte Bermeko Programa balizko 700.000 onuradunei ahal den gehien hurbiltzeko xedez, halako moduan non ez diren deialdi itxiak izanen, baizik eta beti zabalik dagoen programa bat. Hartara, egokiagoa izanen litzateke eskariak eta erregistroa enpleguko zerbitzu publikoen bidez bideratzea, ezen ez ezarri den erregistro telematikoaren bidez.

2. Enplegu Sistema Nazionalaren barruan sar dezan Gazte Bermeko Sistema, haren helburu eta printzipioekin. Estatuko enpleguko zerbitzu publi-

koen eta autonomia erkidegoetako enpleguko zerbitzu publikoen bidez garatuko da, bakoitzaren eskumenen esparruan, enplegu-politikaren helburuak lortzearen eta Enpleguari buruzko Europako Estrategiarekin bat.

3. Europako Gizarte Funtsetik 2015ean heldu diren funtsen erdia gutxienez ere bidera dezan kontusail berariazko batera, zeina autonomia erkidegoek kudeatuko baitute, Enpleguko eta Lan Gaietarako Konferentzia Sektorialean eta Hezkuntzako Konferentzia Sektorialean banatu ostean.

4. Abian jar dezan, autonomia erkidegoekin eta udalekin lankidetzan, informazio-kanpaina trinko bat, programaren nahiz inskripzio-baliabideen balizko onuradunei bideratua.

5. Autonomia erkidegoekiko zuzeneko lankidetzan egin ditzan neurri horiek, eta irizpide argiak ezar ditzan Enpleguko Konferentzia Sektorialean eta Hezkuntzako Konferentzia Sektorialean, prozesuetan malgutasunez jokatzuz eta autonomia erkidego bakoitzaren errealitate sozioekonomikora egokituz, hartara malgutasunean eta eraginkortasunean irabaziko baita.”

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Nafarroako armarrria Euskal Autonomia Erkidegoaren monumentu batean agertzearen aurka dagoela, Nafarroari parte hartzen ez duen ente baten probintzia edo lurralde soil baten zeregina ematen baitio.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako armarrria Euskal Autonomia Erkidegoaren monumentu batean agertzearen aurka dagoela, Nafarroari parte hartzen ez duen ente baten probintzia edo lurralde soil baten zeregina ematen baitio.

2 Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du Nafarroako Foru Komunitatea

Espainia konstituzionalaren barruko foru erkidego bereki gisa instituzionalki defendatzearekin.

3 Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere nahia dela Gernikako Enparantzan Nafarroako Foru Komunitateari buruzko aipamenak ken daitezzen, eta hori da Rosarioko Udalarari eta Rosarioko Kontzejuari helarazi nahi diena.”

Iruñean, 2014 abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu emakume batek iragan asteburuan Iruñean pairatutako sexu-erasoa, eta biktimari bere elkartasuna eta babesa adierazten baitizkio.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak deblauki gaitzesten du emakume batek iragan asteburuan Iruñean pairatutako sexu-erasoa, bai eta Espainian azken egunotan genero-indarkeriaren ondorioz gertatutako erailketak eta erasoak ere.

2. Nafarroako Parlamentuak bere higuin erabatekoena adierazten du emakumeen kontrako indarkeria-mota ororen aurrean, eta eraso sexista guztiekiko "zero tolerantzia" aldarrikatzen du.

3. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babesa adierazten dizkie sexu-erasoen biktimari guztiei nahiz genero-indarkeriaren biktimen senitartekoei eta lagunei.

4. Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten du jarrera matxista horiek oraindik ere gertatzen jarraitzeagatik, eta adierazten du bere borondatea dela errotik desagerraraztea emakumeen aurkako indarkeria-mota oro, zeina emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren eta patriarkatu menderatzaile bat egotearen ondorio baita.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du beharrezkoak diren tresna guztiak taxutu ditzaan berdintasunezko gizarte bat eraikitzeko, non gizonen eta emakumeen beren bizitzaren alderdi guztiak askatasunez eta berdintasunez bizi ahalko baitituzte, eta ez duten tokirik izanen gizartearen zati batek bestea mende hartzearen eta edukitzearen jarrerek.”

Iruñean, 2014 abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Dominari buruzkoa eta Francisco Franco Bahamonde Nafarroaren adopziozko seme izatearen izendapena ezeztatu eta indarrrik gabe utz zedin premiatzen zuen Nafarroako Parlamentuaren erabakia betetzeari buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Dominari buruzkoa eta Francisco Franco Bahamonde Nafarroaren adopziozko seme izatearen izendapena ezeztatu eta indarrrik gabe utz zedin premiatzen zuen Nafarroako Parlamentuaren erabakia betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

1. Zer talde edo pertsonak eta zer urtetan jaso dute Nafarroako Urrezko Domina, zeina 1973an sortu baitzen eta gaur egun irailaren 28ko 290/1998 Foru Dekretuaren bidez arautzen baita?

2. 2005eko apirilaren 7an, Parlamentu honetako Osoko Bilkuran erabaki bat onetsi zen, zeinaren bidez premiatzen baitzen atzera bota eta indarrrik gabe utz zedin Nafarroako Foru Diputazioak 1974ko abenduaren 28an hartu zuen erabakia, Francisco Franco Bahamonde Nafarroaren adopziozko seme izendatzen zuena. Bete al da erabaki hori?

Iruñean, 2014ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

